

DOLORS BASSA COLL

“Emakumea eta gaizkilea izatea modu bikoitzean kriminalizatzen du gizarteak”

Bazterketa, hainbat lanpostuetara sarbidea debekatua izatea, kartzelako jardueretarako ordu murrizketa edo gizonezkoen espetxeetako emakumeen moduluetan preso egoteak eragiten dituen desberdintasunak dira, bertzeen artean, emakume presoek ordaintzen duten kondena bikoitza. Halaxe azaldu dio ARGIAri Kataluniako prozesuaren sententziarengatik hamabi urteko kartzela zigorra duen Dolors Bassa (Torroella de Montgrí, 1959) Generalitateko Lan eta Gizarte Gaietarako kontseilari ohiak. 800 egunetik gora daramatza giltzapetuta.

 SAIOA BALEZTENA  JORDI BORRÀS

Nola oroitzen duzu espetxera sartu zinen unea?

Azaltzen zailak diren sentimenduak bizitu nituen: amorrua eta inpotentzia babesik gabe sentitzeagatik eta, era berean, eskubide kolektiboaren defentsan aritzearen uste oso irmoa.

Nola jaso zenuen sententzia?

Astakeria bat izan zen. Tira, absolutzioa ez zen edozein sententzia bidegabea zen, baina hamabi urteko espetxe zigorra mendeku miserablea da. Itxaropenik ere ez nuen egia erran, baina egia da zuzenbide penalari heltzen niola: guttienez uste nuen defentsak aurkeztutako frogak desmuntatu zituztela kontakizun fiktizioa eta akusazioaren testigantza arguentu gehienak. Horregatik, eta zuzenbide penala indibiduala dela kontutan hartuta, sekula ez nuen bi digitutako kondena batean pentsatu.

Madrilgo Alcalá Meco emakumezkoen espetxean

egon zinen lehendabizi eta Kataluniara gerturatu zintuzten gero, gizonezkoen espetxe bateko emakumezkoen modulura. Egia da Madrilera itzultzeko eskaera egin zenuela?

Bai, hasieran bai. Segurtasun neurriak desberdinak ziren: Katalunian espetxea modernoagoa da, dena dago automatizatuago eta, ondorioz, egokitzea ere zailagoa izan zen. Hala ere, Puig de les Basses espetxean familia eta lagunak gertuago ditut eta horrek konpentsatzen dit. Eta 100.2 artikuluari esker, orain, espetxetik 45 minututara dagoen nire herrira joan naiteke lana egitera.

Genero ikuspegitik kritikoa zara espetxe politikekin. Zeintzuk dira emakumeek pairatzen dituzuen desberdintasunak?

Ez da kasualitatea emakumezkoentzako hain espetxe gutxi egotea. Giltzapetutako biztanleriaren %8a gara bakarrik emakumeak eta, testuinguru horren au-



rrean, espetxeak gizonezkoentzako daude pentsatuta. Espetxearen egunerokotasunean ere agerian dago hori: laneko integrazioaren aldeko ikastaro okupazionalak genero estereotipoen isla dira, Puig de les Basses espetxean guk piszinako jarduera guttiago ditugu gizonezkoekin alderatuz, ekonomatua emakumezkoen higiene produktuak falta dira, emakumezkoek egon ezin duten lanpostuak daude... Espetxetik lanean ari naiz halako desberdintasunen kontra.

Zenbateraino pairatzen duzue emakumeek bazterkeria bikoitza espetxean?

Emakumea eta gaizkilea izatea modu bikoitzean kriminalizatzen du gizarteak. Eta gure kasuan, erabat desberdina da emakumeontzat pentsatutako espetxe batean preso egotea edo gizonezko espetxe baten emakumezkoen moduluan egotea: hori da desberdintasunik handiena espetxeratutako kide gizonezkoekin alderatuz; bidegabekeria berdina



pairatzen ari garen arren, zazpiak elkarrekin daude modulu berdinean.

Hitz egin dezagun politikaz. Zuk ERCKo diputatuaren akta uztea erabaki zenuen. Zergatik?

Presazko egoera izan zen. Generalitateko presidentea bozkatu behar genuen eta biharamunean deklaratzera deituak ginen. Bitxiki, hiru emakumeok erabaki genuen diputatu akta uztea: Marta Rovirak, Carme Forcadellek eta nik neuk. Batetik, espexera joan beharko bagenu, gure parlamentuko lana behar bezala ezin genuelako egin. Bertzetik, biharamunean aringarria izan zitekeelako, espexean sartzea saihestuz. Hurrengo presidentea bozkatzeko geure erantzukizuna betea genuela uste genuen, CUPEk alde bozkatu izan balu, geure hiru botoak erabakigarriak zirelako Jordi Turull presidente izateko.

Espainiako Kongresuan ERCKo diputatua den Montserrat Bassa

ahizparekin liburu bat idatzi berri duzu, espexeko beiraren bi aldeetatik. Nola suertatu zen ideia?

Emakume begiradatik jasota utzi nahi nuen bizitakoa. Elkarrekin egitea erabaki genuen, errepresioa espexetik azaltzea garrantzitsua delako, baina, era berean, hormen bertzelatik jende anitzek sufritu duena ere azaldu nahi genuelako, bereziki familiak eta lagunek. Errepresioa oso gogorra eta kolektiboa izan da, eta bion bizipenen bitartez errealagoa egiten genuen.

UGTko idazkari nagusia izan zinen 2008tik 2015era. Gehiengo sindikalaren aldetik babestuta sentitu zara?

Pertsonalki beti eman didate babesa. Bartzuetan, orain bezala, modu esplizitu eta publikoagoaren bitartez, eta bertzetan, hasieran bezala, hedabideetan gehiegi azaldu gabe.

Alde bakarreko bideak ez du

funtzionatu. Urrutiei joan al zineten?

Gure ustez komeni zena egin genuen. Hautestontzietan hiritarrek agindu zuten mandatu jarraituz, baina elkarriketa eta negoziazioa beti presente edukiz. Beraz, elkarriketan jardun ez bagenuen izan zen bertzeldean ez zegelako inor elkarriketarako prest. Hori bai, independentziaren helburua asetzeko inoiz baino gertuago egon gara. Ezer ez da berdín izango 2017ko urriaren ondotik eta ez diogu sekula uko egingo Kataluniako Errepublikari aske eta independentista eraikitzeari. Ez dago errepresiorik hori aldatuko duenik.

Errepublikaren aldarrikapenaren ondotik batzuk erbesteratu ziren eta bertzeak espexeratu egin zintuzteten. Badago uste duenik estrategia falta egon zela zuen artean. Ados zaude?

Katalunian erreferenduma bozkatzeko lan handia egin genuen eta Espainiako



Estatuak errepresioaren mailarik altuena aktibatu zuen. Horrek beldurra eragin du, hiritarren artean eta erakundee-tan. Taktika lehenetsi behar izan genuen, estrategia baino. Ez uste bezain azkar seguruenik, baina ziur nago errepublika independentea lortuko dugula.

Sekula pentsatu zenuen erbesteratzean?

Ez. Argi izan dut nire erantzukizuna nire herrialdean gelditzea zela, nire jendearen ondoan. Erabaki askea izan zen, ezjakintasun handiko une batean hartua.

Orain mugimendu independentista bide orririk gabe dago. Zein uste duzu dela hemendik aurrerako estrategiarik hobereena?

Ez nago ados. ERCK herrialde eta mugimendu gisa indartzeko estrategia bat aurkeztu du, berriz ere saiatzeko. Aurrera egiten jarraitzeko ezinbestekoa iruditzen zait ahalik eta gehien izatea. Funtsezkoa da errepublikara heltzeko bidea independentzia denaren uste osoa zabaltea. Emantzipazio sozial eta nazionala, ahalik eta azkarren.

Ordezkarri independentisten artean gaizki ulertuak nagusitu dira, aldiz. Clara Ponsatí kontseilari ohiak adibidez, duela gutti erran zuen urriaren 1ean “gezurretan” ari zinetela.

Ez nago berarekin ados eta adierazpen

horiek mintzen naute. Norbaitek uste du gezurretan ariko bagina, espetxean hamabi urtez egongo ginatkeela? Nire kasuan, behintzat, ez nintzen sekula gezurretan ibili. Eta ez dut uste bukaeraino iritsi ziren nire gobernuko lagunek ere egin zutenik. Hilabete biziak izan ziren, egia da bera beranduago eta sail konkretu batean sartu zela, agian horrek bertze ikuspegi bat eman zion.

Koronabirusaren harira Bartzelonako Merkataritza Ganberako presidente Joan Canadellek erran zuen “Espainia langabezia eta heriotza den bitartean Katalunia bizitza eta etorkizuna dela”. Ildo berean, Meritxell Budó Generalitateko bozeramaileak adierazi du “Katalunia independente batean ez lirakeela hainbertze hildako egongo”. Zenbateraino kaltetzen dute halako adierazpenek mugimendu independentista?

Edonor askea da uste duena errateko, horretarako dago adierazpen askatasuna; baina uste dut adierazpen horiek tokiz kanpo daudela. Zoritxarrez epidemia herrialde askotan zabaldu da, bizitza asko eramanez eta lan prekarietatea ekarri du familia askotara. Ni kritikoa naiz Espainiako Gobernuaren kudeaketarekin eta uste dut katalanok pandemia gure kabuz kudeatzeko esku-bidea eta betebeharra dugula. Baina ho-

rrek ez du erran nahi hobeto egingo genuenik zuzenean. Frogatu egin beharko genuke, beti bezala. Seguruenik desberdin egin izango genuke, hori bai.

Amaitzeko, fidatzen zara Espainiako Gobernuak abiatu duen eztabaida mahaiarekin?

Elkarrizketaz fidatzen naiz. Elkarrizketaren bitartez eta judizializaziorik gabe politiko den gatazka hau libratzeko aurrerapausoak emango ditugu, seguru. Momentuz elkarrizketa mahaiara tratatuta dago pandemiarengatik, baina espero dut aurki elkarrizketari eta negoziazioari berriz heltzea.

Preso politikoak aske gelditzea ahalbidetzeko, kode penalean sedizio delituaren aldaketa egiteari buruz zer deritzozu?

Proposamenaren zehaztasunak jakin beharko genituzke. Uste dut adabakia izango litzatekeela: sedizio delitua aldatzea ez da inolaz ere konponbidea. Delitu hori ez dago demokrazia finkatuetan eta ezabatu egin beharko litzateke, ez aldatu. Konponbidearen alde aurrera egiteko ezinbestekoak dira amnistia, hiritarrei ahotsa eta botoa ematea, eta errepresioarekin amaitzea. Hori bai, espetxean ez gaude ongi eta nik ez dut espetxeko martiria izateko uste sendorik, beraz, ahalik eta azkarren aske gelditu, hobe. Espetxeratuta prezio oso altu eta bidegabea ordaintzen ari gara. ●